

LIBURUTEGIKO ARAUTEGIA

- ❖ Liburutegian isilik egon behar da (ozen hitz egitea ez da batere lagungarria liburutegian dauden beste irakurleentzat). Era berean, helduen ardura (gurasoena, zaintzaileena, aitona-amonena...) izango da haurrak liburutegitik eramatea, irakurtzeaz aspertu eta aztoratzen direnean.
- ❖ Isiltasuna isiltasun, ikastera etortzen direnei ere toleranteak izatea eskatzen zaie: liburuak aukeratzera etortzen direnek eskubidea dute liburutegian askatasunez mugitzeko eta liburutegiko langileei kontsultak egiteko, baita irakurgetan ere. Denok gara liburutegiko erabiltzaileak.
- ❖ Dokumentuak kontsultatu ondoren, horretarako jarrita dauden gurditxo eta kutxetan utzi behar dira. Liburutegiko langileak arduratuko dira apaletan jartzeaz.
- ❖ Liburutegiko zerbitzu gehienak doakoak dira. Horrek ez du esan nahi baliorik ez dutenik. Norbaitek dokumenturen bat (liburuak, DVDak, CDak...) kaltetu edo galduz gero, berria erosi beharko du. Bestalde, altzariak, ekipoak eta funtsa (liburuak, DVDak eta abar) ezin dira tokiz aldatu, are gutxiago hondatu edo desegoki erabili. Norbaitek zerbait hondatzen badu, konponketa ordainduko du.
- ❖ Ezin da instalatu kanpoko DVDrik, CD-ROMik... liburutegiko ordenagailuetan-eta. Era berean, liburutegiak ez du erantzukizunik izango funtsak erabiltzaileen ordenagailuetan-eta eragindako kalteengatik.
- ❖ Mailegu-zerbitzua erabiltzeko ezinbestekoa izango da txartela erakustea, eta isuna duten erabiltzaileek ezin izango dute ezer eraman edo katalogoan eragiketarik egin (erreserbak, mailegu-eskaerak...) zigorra bukatu arte. Txartela 5 aldiz baino gehiagotan galdu duten erabiltzaileek ezin izango dute erabili aipatutako zerbitzua 6 hilabetean.
- ❖ Dokumentuak itzultzen ez dituztenek ezin izango dute mailegu-zerbitzua erabili dokumentuak itzuli arte.
- ❖ Internet zerbitzua ezin da erabili txateatzeko edo orrialde pornografikoak kontsultatzeko. Era berean, 14 urtetik beherakoek ezin izango dute facebook eta twitter sareetan sartu.
- ❖ Fotokopiagailua liburutegiko informazioa kopiaitzeko erabiliko da. Kanpoko dokumentazioa ezin da fotokopiatu.

- ❖ Liburutegiko langileak eta gainontzeko erabiltzaileak errespetuz tratatu behar dira. Langileek kalera bidal dezakete jokabide desegokia duen edonor, eta zigorrak ezarri ere bai.
- ❖ Debekatuta dago jatea, edatea eta erretzea.
- ❖ Telefono mugikorra itzalita edo soinurik gabe eduki behar da. Halaber, ezin da irudirik grabatu edo argazkirik atera.
- ❖ Ezin da animaliarik sartu, txakur itsu-gidariak izan ezik.
- ❖ Ezin da irakurgetan eskulanik egin, ezta guraize, kola eta abarrak erabili ere. Haurren liburutegian margoak eskainiko dira, baina soilik etxerako lanak egiteko.
- ❖ Irakurleek ezin dute erabili aulki edo ikasteko leku bat baino gehiago, ezta beste lekuren bat erreserbatu ere. Erabiltzailearen batek utzitako tokia 30 minutu baino gehiago hutsik egonez gero, beste erabiltzaile batek hartzeko eskubidea izango du.
- ❖ Norberaren gauzak ondo zaintzea gomendatzen da; liburutegia ez da arduratuko lapurtutako edo galdutako gauzez.
- ❖ 6 urtetik beherako haurrek heldu batek lagunduta egon behar dute haurren liburutegian. Bestalde, 7 urtetik beherakoek ezin izango dute liburutegiko ordenagailurik erabili.
- ❖ Adin txikikoek tutoreen baimena behar dute liburutegiko ordenagailuak erabiltzeko. Horretarako, liburutegiak baditu baimen-orriak.
- ❖ Udako liburutegiko liburuak eta aldizkariak (Usabal Liburutegia) kiroldegian irakurtzeko dira: ezin dira maileguan etxera eraman, ezta on line katalogoaren bidez erreserbatu edo maileguan eskatu ere. Bertako irakurleek liburutegia itxi baino 15 minutu lehenago (18:45ean, zehazki) itzuli beharko dituzte.
- ❖ Aldaba auzoan dagoen funtsa (Aldaba Liburutegia) bertakoek erabiltzeko da: ezin da katalogoaren bidez “erreserbatu”, ezta “maileguan eskatu” ere
- ❖ Erabiltzaileek liburutegiaren inguruko kexak eta iradokizunak idatz ditzakete [Udate](#) udal zerbitzuaren bidez.
- ❖ Hemen hondakinak gaika biltzen ditugu, izan arduratsu.
- ❖ Arautegia behin baino gehiagotan urratzen duenari liburutegiko txartela kenduko zaio edo, bolada baterako, liburutegian sartzea debekatu.